



# Villancicos de NAVIDAD

EN VASCUENCE

Conforme se cantan en GUERNICA y sus alrededores



## Gabonetarako Kantak



GERNIKA-n  
eta

albo-errietan  
kantetan  
diran lez

LIBRERÍA  
GAUBECA  
GUERNICA

M  
A  
R  
I  
J  
E  
S  
I  
A  
K

## MARIJESIAK

Conserva la Villa de Guernica sus múltiples costumbres peculiares para festejar con algo de simbolismo los meses y, casi todas las semanas del año, así resultan sus fiestas a cada cual más resonantes en las diferentes épocas, pero ninguna tan sugestiva como la que se practica durante el mes de Diciembre, para conmemorar el nacimiento del Niño Dios, el misterio más inefable y conmovedor de toda la Cristiandad.


Y los guerniqueses, para celebrar este sublime acontecimiento, se prestan, año tras año, a glorificar con un Novenario sumamente original, y la efectúa un grupo de genuinos guerniqueses, con el nombre hereditario de MARIJESIAK, que como representación del pueblo se brindan a proseguir la tradición.

Principia este piadoso ejercicio el día 16 de Diciembre, y para las 4 de la madrugada, los componentes de MARIJESIAK, se congregan en el atrio de «Andra-Mari» de Guernica, y de frente al Tabernáculo, todos de rodillas, entonan la primera salutación a Jesús Sacramentado, con la estrofa:

**Sakramentu Santu Jauna — Zelebradu zanian,  
Yzena imiñi deutse — Jesus Salvatoria.**

Igualmente, delante de la iglesia de Santa Clara y capilla del Asilo Calzada, elevando la misma forma, la salutación Sacramental y, los matinales cantores, siguen su trayectoria por todas las calles y arrabales de la Villa Foral, entonando en sonoras melodías los Villancicos que la posteridad legó a Guernica.

# JESUS-EN JAYOTZERA-KO GABON-KANTAK LENENGO LAU EGUNETARAKO



1.<sup>a</sup> A-bendu San - tu o - ne - - tan  
2.<sup>a</sup> E - de - gi di - - ra Ze - ru - - ko



kris - to - ren jai - yo - tzi - - a Ja - zo te - der o - ne - gaz  
a - te u - rre go - rriz ko - ak ta eu - ra - kin ba - te - ra



guz - ti - ok pozgai - ti - an Ma - ri - a, Jo - se, Je - sus, Ma - ri - a .  
bi - de i - za - rrez - ko - ak Ma - ri - a, Jo - se, Je - sus, Ma - ri - a .

1. Abendu santu onetan  
Kristo'ren jayotzia,  
kontentuaren andiz  
gustiok poz-gaitian.  
*Maria, Jose,  
Jesus, Maria.*

2. Adan formatu zan  
lenengo lurrian,  
pekatu egin eban  
Paradiso eternalian.  
*Maria . . .*

3. Linboan egozan deyez  
bost milla urtian,  
Jauna Zerutik lurrera  
jatzi daitean.  
*Maria . . .*

4. Erabagi izan zan,  
Trinidad altuan,  
bear zala bidaldu  
lurrera Aingerua.  
*Maria . . .*

5. Bear zala bidaldu  
lurrera Aingerua,  
erremediyatzeko  
Adan'en pekatua.  
*Maria . . .*

6. Marabilla andi bat  
Zeru-goitik lurrera,  
konsebidua izan zala  
Zeru-ko Erregiña.  
*Maria . . .*

7. Eguzki dibinala  
gaubaren - gaberdian,  
etorri zan mundura  
gizonaren antzian.  
*Maria . . .*

8. Trinite altuko  
bigarren Personia,  
transformaturik dago  
Belen-go Portalian.  
*Maria . . .*

9. Edegi dirade Zeruan  
ate diamantezkuak,  
arexekin batera  
bentana ixarrezkuak.

*Maria . . .*

10. Nabegadua izan zan  
bederatzi illabetian,  
mundu onetako  
ichasuaren ganian.

*Maria . . .*

11. Ez dator gizonetatik  
ez gizonaren obratik,  
elejidurik eguan  
eternidadetik.

*Maria . . .*

12. Gizonik ez dot ezagun  
lurraren ganian,  
egiñik daukat voto  
ni jayo nintzanian.

*Maria . . .*

13. Espiritu Santu Jaunak  
emonik argia,  
beti konsebidua  
izan da garbia.

*Maria . . .*

14. Ez daukat nik errurik  
Ni ba-naz mirabea,  
Jaunak ordenatu dau  
Ni onela izatea.

*Maria . . .*

15. Eguzkia nola dagoan  
kristalaren artetik,  
Semia jayo dala  
Ama-ren sabeletik.

*Maria . . .*

16. Kristalian argia  
bezela pasatu,  
egin - da gero bere  
Dontzella gelditu.

*Maria . . .*

17. Nor da emen Mensajerua  
San Gabriel Aingerua,  
egingo dabena ondo  
Jaunaren agindua.

*Maria . . .*

18. Josepe dichosua  
au da denporia,  
Zeugandik jayoteko  
Jesus Salbagillia.

*Maria . . .*

19. Otzaren ikaraz dabil  
jayo dan infantia,  
Bere Amak dirautso:  
— Ixi, ene Semia.

*Maria . . .*

20. Astua eta idia  
daukaz aldamenian,  
arnasaz berotzeko  
otztuten danian.

*Maria . . .*

21. ~~X~~ Astua eta idia  
jaten egon - ziranian,  
Seiña eukela  
biyaren bitartean.

*Maria . . .*

22. ~~X~~ Astuak arrantzia,  
idiak arnasia,  
alan berotzen eben  
jayo dan Infantia.

*Maria . . .*

23. ~~X~~ Iru Errege Maguak  
ain bide luzian,  
mirari ain aundiz  
alkartu zirian.

*Maria . . .*

24. Iru Errege Maguak  
ain bide luzian,  
bakochak eroyela  
euren presentiak.

*Maria . . .*

25. ~~X~~ Iru Errege Maguak  
ain bide luzian,  
ostatua artu eben  
ain eche probian.

*Maria . . .*

26. Belen-go Portalera  
eldu ziranean,  
ango zaldiaren otsak  
espantatu zeukian.

*Maria . . .*

27. Seiña adoratzera  
iru Errege emen,  
ikusirik probezan  
arritu ziraden.

*Maria . . .*

28. Erregaluak bere  
ezarri zituen:  
urria, intzentsua,  
mirra, irugarren.

*Maria . . .*

29. ~~X~~ Gaspar-ek intzentsua,  
Melchor-ek urria,  
Baltasar-ek eroyan,  
mirra preziosua.

*Maria . . .*

30. Erodes-ek esan eutsan  
Erregiari gabian,  
emendik zatozela:  
ni bere joan neitean.

*Maria . . .*

31. Erodes, koitadua,  
burlatu zaitue,  
Erregiak joan dira  
zeu ikusi bage.

*Maria . . .*

32. Erodes Erregia,  
faltso, traidoria,  
zeren damu eban  
Kristo-ren jayotzia.

*Maria . . .*

## BESTE LAU EGUNETAN KANTETAKOAK

1<sup>a</sup> Bi llo-xik ba-za-oz be-re e-tza-ra Zu po-bri-a  
2<sup>a</sup> Ma-ri-a Binji-ni-a e-de-qi zu a-ti-a.

Ze-ru-an jo-si-rik da-go Zu-re-tza-ko e-rra-pli-o Je-su-Kris-to  
I-ku-si dai-gun a-rin Ze-ru-e-ta-ko U-mi-a Je-su-Kris-to

A-do-ra-tzen zai-tu-gu Je-su-Kris-to.  
A-do-ra-tzen zai-tu-gu Je-su-Kris-to.

33. Mendian egozela  
jaboten ganaduak  
agertuten yakezan  
Zerutik Aingeruak.  
Jesukristo, ¡ay! qué bonito  
buen Niño, ¡Jesukristo!

*Jesukristo,  
adoratzen zaitut,  
Jesukristo.*

34. Corrían los pastores,  
dejando al ganado  
que daban grandes voces:  
¡Jesús sea adorado!

*Jesukristo . . .*

35. Chit egun dichosua  
dogu Egun-barria,  
zegaitikan dan Jesus  
gugana etorria.

*Jesukristo . . .*

36. ¡Ay! ze konsuelua  
orain daukagun,  
Jaungoikoa-ren Semia  
etorri da lagun.

*Jesukristo . . .*

37. Gusitok bear dogu  
era onian jarri,  
graziyak emoteko,  
gaur Jayo - danari.

*Jesukristo . . .*

38. Erakutsi bear dau  
zer - egin biogun,  
Bera-ren alabantzak  
kantatu dagigun.

*Jesukristo . . .*

39. Jose emon dautse  
Maria-ri Esposo,  
biak izan daitezkan  
Jesus-en guraso.

*Jesukristo . . .*

40. Karguan jarri dira  
Jose eta Maria,  
anparatzeko Seme  
estimagarria.

*Jesukristo . . .*

41. Birjiña arritu zan  
agur egin eutsanian,  
onelako mensajia  
nok ete leukian.

*Jesukristo . . .*

42. Agur, Dontzella,  
graziaz betia,  
Zeure izena dozu  
Maria Birjiña.

*Jesukristo . . .*

43. Dontzella galat ori  
orbanik bagia,  
Zeure izena dozu  
Maria Birjiña.

*Jesukristo . . .*

44. Arkangel San Gabriel  
Anunziadora,  
ez - gaizuz espantau  
ain gente humildia.

*Jesukristo . . .*

45. Dempora desiadua  
etorri zanian,  
laster gara eldu  
Kristo-ren echian.

*Jesukristo . . .*

46. Josepe - k dirautso  
Maria Birjiñari,  
noiz agertuko daben  
Esperantza geure ori.

*Jesukristo . . .*

47. Biak Belen - era  
dira zuzendu,  
ara eldu ziranian  
ostatuan itandu.

*Jesukristo . . .*

48. Eskape echechu baten  
dagoz atiak joten,  
gizona bentanara  
chito nekez urteten.

*Jesukristo , . .*

49. Gizonak bentanatik  
bai dautse erantzuten:  
— ¿Nor da ordu onetan  
gure atiak joten?

*Jesukristo . . .*

50. Nor ta nortzuk bizi dira  
echechu zar orretan?  
Nor eta zer gura zenduke  
Jaunaren ordu onetan?

*Jesukristo . . .*

51. Ara or, echechu zar bat  
uriaren ertzean,  
aberiak eta baño  
ez dira sartzen barruan.

*Jesukristo . . .*

52. Suchu bat egiten asi  
kortachu basterrian.  
aixiak eta otzak  
lenera eroyan.

*Jesukristo . . .*

53. Seiña billoxik dago  
lur otzaren ganian,  
Amia belauniko  
negarrez aurrian.

*Jesukristo . . .*

54. Billoixik ba-zagoz bere  
etzara Zeu pobria,  
Zeruetan josirik dago  
Zeuretzako erropia.

*Jesukristo . . .*

55. Bedarrak burazpitzat,  
ogetzat askachoa;  
aurrian belauniko  
Bere Ama umildia.

*Jesukristo . . .*

56. Pobresan izan ba-da  
Jesus-en jayotza,  
batetik edurtzea,  
ta bestetik ixotza.

*Jesukristo . . .*

57. Amiak artu eban  
Semia besoetan,  
Semia eta Jaungoikoa  
ebazan adoretan.

*Jesukristo . . .*

58. Jose eta Maria  
euren Semechoa - gaz,  
doaz Belen - era  
betetan legiagaz.

*Jesukristo . . .*

59. Obligaziño barik,  
Legia betetuten,  
guri erakustiarren  
Zerua irabazten.

*Jesukristo . . .*

60. Ara, gura ba-dozu,  
ortixek dago bidia,  
Zuzena bai - dalako  
Kristo-ren Legia.

*Jesukristo . . .*

61. Arantzaren arteko,  
jayo zanian,  
kulpa originala  
mancha bagia.

*Jesukristo . . .*

62. Seme Jauna daukela  
urre-aurki eder baten,  
Bere Ama belauniko  
aurrian adoraten.

*Jesukristo . . .*

63. Sakramentu Santu Jauna  
zelebradu zanian,  
ixena imiñi eutsen  
Jesus Salbadoria.

*Jesukristo . . .*

64. Emen esan ba-dogu  
berbarik deungara,  
Eleiz Ama Santiari  
parka - eske nayago.

*Jesukristo . . .*



# AZKENENGO EGUNERAKO

Na-za-re-ta-ko e-lei-zan da-go Da-ma  
 e-der bat ja-rri-rik Na-za-re-ta-ko e-lei-zan  
 da-go Da-ma e-der bat ja-rri-rik I-ze-  
 na be-re Ma-ri-a dau-ko on-do gra-zi-a be-te-  
 rik, ta bart Be-len-en ta bart Be-len-en ja-yo da Je-sus Na-za-re-t.

65. X Ogeta laugarrena  
 dogu abenduan,  
 deseo genduana  
 logradu genduan.

*Bai, Belen-en,  
 eta bart, Belen-en,  
 jayo da  
 Jesus Nazaret.*

66. X Gabeko amabiak  
 jo daben orduan,  
 gure Salbadoria  
 jayo da munduan.

*Bai, Belen-en . . .*

67. X Belen-go Portalian,  
 estalpe batian,  
 jayo da Jesus ona  
 ganaduen artian.

*Bai, Belen-en . . .*

68. X Belen-go urian  
 Gabon-gabaren erdian,  
 Birjiña Santisimia dago  
 konsolaziño aundian.

*Bai, Belen-en . . .*

69. Mundu gustia dago  
gaur, pozez beterik,  
Semia jayo dalako  
mancha bagarik.

*Bai, Belen-en . . .*

70. Goiko mendietatik  
pastoriak datoz,  
esanik, Aingeruekaz,  
jayo dala Jesus.

*Bai, Belen-en . . .*

71. Pastore Santo Birtuosuak  
baliau zakiguz, gaur emen,  
bart arratzian zer pasatu dan  
konta dagigun Belen-en.

*Bai, Belen-en . . .*

72. Korraletako ardiak bere  
jantzan ebiltzan orduan,  
geure Salbadoria  
jayo dalako munduan.

*Bai, Belen-en . . .*

73. Jesus Divino, gaubaren otza  
jausten dan inestasiye,  
orrelan jarraituten ba-dau  
ilda ganadu gustiye.

*Bai, Belen-en . . .*

74. Ortixek gora niñoyela,  
ospitalechu baten,  
aita San Josepe topau neban  
astochua chalmatzen.

*Bai, Belen-en . . .*

75. Nazareta'ko tenpluan dago  
Dama eder bat jarririk,  
ixena be Maria dauka  
ondo graziaz beterik.

*Bai, Belen-en . . .*

76. Gura daunak kantatu  
Jesus-en alabantzak,  
emen dagozan lez  
gogo-gogotik kantau.

*Bai, Belen-en . . .*

# GABON KANTA ZARRAK

## SUKALDIAN KANTETAKOAK

### APARI AURREKOA

¡ Ator, ator mutil echera !  
Gastaña zimelak jatera;  
Gabon - gaba ospatuteko  
Aitaren ta Amaren onduan,  
Ikusiko dok Aita barreka,  
Ama, be, poz - atsegiñaz.

Eragiyok, mutil,  
Aurreko danboliñ - orri;  
Gastañak erre - artian,  
Chi - pli, cha - pla, pun,  
Gabon - gaba pozik  
Igaro daigun.

### APARI OSTEKOA

Gabon - gabeen oituten dogo  
Gustiyok apari ona:  
Besigu, lebatz. makallau-saltza,  
Bakochak berak al - dauna.

Gero churrun plin - plan,  
Ardau ta paitarra,  
Katubak artuta  
Zabu - zabuka.

Estos «Villancicos de Navidad» han sido recopilados por Víctor de Gaubeca y Duo. Se agradecerá la aportación de aquellos que no figuran en estas páginas, siempre que sean tradicionalmente populares, con objeto de editarlos en una publicación más amplia con sus correspondientes melodías.

4.<sup>a</sup> Edición

Gabon. - Kanta oneik Gaubeka eta Duo Bitor, Liburu-egilleak batuak dira, iñok jakin ba-leki besteren batzuk, jakin-erazo bedi.

G U E R N I C A

D i c i e m b r e

1 9 5 5

Abendua = Lotatzilla



IMPRESA DE GAUBECA